

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

519

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 18koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita sailburu beraren 2022ko irailaren 8ko Aginduaren bidez iragarri ziren zenbait eskalatan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako kalifikazio-epaimahaien osaera.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduaren bidez, bestek bestek, honako prozesu hauen deialdia egin zen:

- Administrazio Goi Mailako Eskala. Prozesu berezia eta salbuespenezko prozesua.
- Administrazio Kudeaketako Eskala. Prozesu berezia eta salbuespenezko prozesua.
- Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ekonomia eta Enpresako Eskala. Prozesu berezia eta salbuespenezko prozesua.
- Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Estatistikako eta Datu Analisisietako Eskala. Prozesu berezia eta salbuespenezko prozesua.
- Kidego Teknikoko Estatistikako Eskala. Salbuespenezko prozesua.

2022ko azaroaren 21eko Aginduaren bidez, hautaketa-prozesu horietako epaimahaietan parte hartu behar duten pertsonak izendatu ziren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Goi Mailako eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorretako 18. apartatuan xedatutakoari jarraituz.

Legezko abstentzio- edo ezintasun-kausa batean sartuta daude bai Administrazio Goi Mailako Kidegoko Administrazio Eskalako eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko Administrazio Kudeaketako Eskalako enplegua finkatzeko prozesu berezietan eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan epaimahaiko idazkari titular izendatutako pertsona, bai eta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ekonomia eta Enpresako Eskalako eta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Estatistikako eta Datu Analisisietako Eskalako enplegua finkatzeko prozesu berezietan eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan eta Kidego Teknikoko Estatistikako Eskalako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan epaimahaiko ordezkari izendatutako pertsona ere. Beraz, aipatutako epaimahaiaren osaera aldatu behar da.

Horrenbestez, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.8 artikuluan xedatzen denaren arabera, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Honako hauek izendatzea ondoren zehazten diren epaimahaietako kide:

José Antonio Cayero Bilbao, Administrazio Goi Mailako Kidegoko Administrazio Eskalako eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko Administrazio Kudeaketako Eskalako enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaiko idazkari titularra.

2023ko otsailaren 1a, asteazkena

Juan Eugenio Mogena Gordo, Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ekonomia eta Enpresako Eskalako eta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Estatistikako eta Datu Analisisietako Eskalako enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako eta Kidego Teknikoko Estatistikako Eskalako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko epaimahaiko ordezkari idazkaria.

Izendatutako pertsonak osatuko dute aipatutako epaimahaia, salbu eta ezgaitasun, ezintasun edo legezko bateraezintasunen bat, abstentzio-kausaren bat edo ezinbesteko kausaren bat ikusten badu Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak.

Bigarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 18a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.